

Gipuzkoako egoitza-harrerako saretik ateratzen diren gazteen helduarorako trantsizioa

The transition to adulthood of young people who leave in residential care in Gipuzkoa

Iratxe Bastero Osez*, Joana Miguelena Torrado, Aintzane Rodriguez Poza

Hezkuntza Zientziak saila, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

LABURPENA: Haur eta nerabeen babes sistemako egoitza-harreratik ateratzen diren gazteen adin-nagusitasuna une erabakigarria da, erabateko babesetik zaugarritasun handiko egoera batera igarotzen baitira. Ikerketa honekin, Gipuzkoako egoitzetatik ateratzen diren gazteen helduarorako trantsizioa euren hitzetan ezagutu nahi da. Horretarako metodologia kualitatibo bat erabili da, zehazki, zortzi gazte-rekin elkarriketa erdi-egituratuaren bitartez. Emaitzek trantsizioa bera eta beraien bizitzako dimentsio desberdinak deskribatzen dituzte, hala nola, bizitegi-egoera, arlo akademiko eta profesionala, sare soziala eta ongizatea, besteak beste.

GAKO-HITZAK: adin-nagusitasuna, helduarorako trantsizioa, tutelatutako ohiak, egoitza-harrera, babes sistema.

ABSTRACT: *The coming of age of the young people who leave the residential care of the child and adolescent protection system is a crucial moment, since they go from total protection to a situation of high vulnerability. The aim of this study is to know in their own words the transition to adult life of young people who leave the Gipuzkoan residences. For this, a qualitative methodology has been used, specifically through semi-structured interviews with eight young people. The results describe the transition itself and the different dimensions of their life, such as the residential situation, the academic and professional sphere, the social network and well-being, among others.*

KEYWORDS: *majority of age, transition to adulthood, ex-ward, residential foster care, protection system.*

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Iratxe Bastero Osez. Hezkuntza zientziak. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). – iratxebastero@gmail.com

Nola aipatu / How to cite: Bastero Osez, Iratxe; Miguelena Torrado, Joana; Rodriguez Poza, Aintzane (2022). «Gipuzkoako egoitza-harrerako saretik ateratzen diren gazteen helduarorako trantsizioa». *Tantak*, 34(1), 53-81. (https://doi.org/10.1387/tantak.22982).

Jasotze-data: 2021/07/12; Onartze-data: 2022/02/18.

ISSN 0214-9753 - eISSN 2444-3581 / © 2022 UPV/EHU



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

SARRERA

Babes sistematik hemezortzi urte betetzean ateratzen diren gazteen helduarorako trantsizioa gaurkotasuneko gaia da. Lópezek eta bere kideek (2013) trantsizioa prozesu gisa definitzen dute, non askotariko zereginei aurre eginez, nerabeak rol berriak bereganatuko dituen. Díazek (2014), aldiz, norbere ezaugarrien menpe ez ezik, aldagai estruktural eta sozialen menpe dagoela dio. Trantsizioaren mugak irudikatzean irizpide ezberdinak erabili dira. Batetik, adituek zenbait baldintza aipatzen dituzte: hezkuntza-ibilbidea amaitzea, enplegua lortzea eta harreman helduak mantentzea, besteak beste (López *et al.*, 2013). Bestetik, Espainiako legediak adin-nagusitasuna hemezortzi urte betetzean ezartzen du (Espainiako Konstituzioa, 1978, 12. art.; Kode Zibila, 1981, 315. art.). Mundu mendebaldrarean, berriz, gaztaroaren mugak itxuragabetzen joan dira. Esate baterako, Espainian gazteak hogeita bederlatzi urterekin emantzipatzen dira, Europako berantiarrenetarikoak izanik (García eta López, 2017; López *et al.*, 2013). Gurasoen etxean denbora luzeagoz bizitzearen ondorioz, gazteria ez da lehenago bezain independentea (Goyette, 2010). Familiaren edo lagunen babesik ez duten gazteek, berriz, prozesuan zailtasunak izan ditzakete (Goyette *et al.*, 2016). Honako babes-zerbitzuetatik ateratzen diren nerabeen kasua da (López *et al.*, 2013).

Artikulu honetan, babes sistematik ateratzen diren gazteen helduarorako trantsizioa ezagutzea helburu duen ikerketa kualitatibo bat aurkezten da, zehazki Gipuzkoako egoitza harreretatik ateratzen diren zortzi gazteen errealtatearena.

1. BABES SISTEMAN ARTATUTAKO HAUREN PROFILA

Espainiako Konstituzioak (EK) haur eta nerabeek nazioarteko hitzarmenetan aurreikusitako babesaz gozatuko dutela eta babes hori ematearen arduradunak familia nahiz botere publikoak direla dio (EK, 1978, 39.4 art.). Dena den, familiak txikien babeserako dagokien betebeharrak behar bezala ez burutzea gerta daiteke. Horiek horrela, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) 3/2005eko Legea oinarritzat hartuz, EAE-ko Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Udal- eta Lurralde-mailako Gizarte-zerbitzuetan Arrisku eta Desanparo-egoeren Larritasuna Balioesteko Tresnak (BALORA) desanparo-egoera «legeek adingabeak zaintzeko ezarritako babes-betebeharrak ez betetzeagatik edo ezin bete ahal izateagatik edo gaizki betetzeagatik gertatzen den egoera» gisa definitzen du (Gipuzkoako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, 2017, 9. or.). Tresna berak zehazten duenez, desanparo egoeraren adierazpena egin ostean, erakunde eskudunak legezko aginduagatik haurraren edo nerabearen tutoretza bere gain hartuko du. Konpetentzia transferentzia dela eta, gurean, EAE-n, Lurralde Historikoen gain dago.

Kasu gehienetan erakunde eskudunak txikiaren tutoretza bere gain hartzeko arrazoi bat baino gehiago dagoen arren, Del Valle eta bere kideek diotenez (2008), ohikoenak zabarkeria fisikoa eta emozionala dira. Honekin batera, substantzien kontsumoa aipatzekoa da (Jackson eta Cameron, 2012). Bestalde, arrazoietako batzuk ondokoak dira: abandonua, sexu-abusua, gurasoen erabakia, tratu txar fisikoa, etxeko indarkeria edota delinkuentzia (Soldevila *et al.*, 2013). Abusuen biktima gehienak neskek dira eta %15-ari eragiten diete (Del Valle *et al.*, 2008).

2. BABES SISTEMAREN ERRONKAK: HAUR ETA NERABEEN ARLO AKADEMIKO ETA PROFESIONALA, OSASUN FISIKO ETA MENTALA, SARE SOZIALA ETA HELDUARORAKO TRANTSIZIOA

Familiatik banatuta hazten diren haurren inguruko ikerketek, banatze hauek haurrengan ondorio kaltegarriak eragiteko aukera gehiago izan ditzaketela frogatu dute (Bowlby, 1951; Forsman *et al.*, 2016). Ildo beretik, 18 urteak betetzean gazte hauen errealitatea aldatzen dela argi dago, erabateko babesetik euren gizarteratzea oztopatzen duen zaurgarritasuneko egoera batera igarotzen direlako (Epelde, 2017). Horrela, batetik, gazteek autonomoagoak izaten erakutsi beharko litzaiekeela adierazi dute (Soldevila *et al.*, 2013; Hollingworth eta Jackson, 2016; Fernández-Simo eta Cid, 2018). Bestetik, babes-sistema uztear dauden gazteen gehiengoak beldurra, bakardadea edo tristura sentitzen du (Melendro, 2011; Montserrat eta Casas, 2012; Campos 2013). Horiek horrela, jarraian babes-sistematik ateratzen diren gazteek arlo akademiko nahiz profesionalean, osasunari dago-kionean eta harremanen esparruan dituzten erronkak azalduko dira.

2.1. Arlo Akademiko eta Profesionala

Testuinguru akademikoan kolektibo hau gizarte-zaurgarritasun handienetakoa duena izanik ere, ikasle guztien artean proportzio txikiagoa direnez, laguntza handiagoa behar dutela oso gutxitan identifikatzen da (Jackson eta Cameron, 2012). Zaurgarritasun honen eragileetako bat irakurtzeko edo lan egiteko espazioen gabezia da (Jackson eta Cameron, 1998; Martin eta Jackson, 2002; Montserrat eta Casas, 2012). Rodríguez-Bravok eta bere kideek (2016) ikasketari egozten zaizkion atribuzioen inguruko ikerketa bat burutu zuten, non egoera zaurgarrian zeuden gazteek ikasketari onura gutxiago aitortu zizkioten. Dena den, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) bukatu duten gazte ex tutelatuen gogobetetasuna handiagoa da bukatu ez duten horiena baino (Martín *et al.*, 2020). Ildo beretik, prestakuntzak bazterketaren katea hautsi ahal izatea baldintzatzen du, besteak beste,

pentsamendu kritikoa garatzen baitu (Fernández-Simo *et al.*, 2020b; Melendro *et al.*, 2020). Zoritxarrez, zenbait aldagaiek ikasten jarraitzea oztopatu dezakete: zaintzaren aurreko oztopo ugariak ez ezagutzea, egunean jartzeko laguntza nahikoa ez izatea, maila baxuko okupazioetara prestatzeko eskoletara bideratzea, hezitzaileak ikasten jarraitzeko laguntza txikia ematea, goi-mailako hezkuntzarako ez orientatzea eta independentzia-ekonomiko goiztiarra lehenestea, hezitzaileen artean hezkuntzarekiko itxaropen oso txikiak besteak beste (Martin eta Jackson, 2002; Montserrat eta Casas, 2010; Jackson eta Cameron, 2012).

Arrisku-faktoreak aipatu diren bezalaxe, adituek ere babes-faktoreak ezagutzera eman dituzte; hala nola, babes-sistemara adin handiagoarekin sartzea, egoitzaz ahalik eta gutxien aldatzea, irakurtzen goiz eta jariotasunez ikastea, hezkuntzari garrantzia aitortuko dion erreferente bat edukitzea, eskolan ondo doakien babes-sistematik kanpoko lagunak edukitzea, interes pertsonalak garatzea, babes-sistemaren baitan laneko esperientziaren bat edukitzea, bizitza independenterako prestakuntza jasotzea eta delituzko jokararik ez erakustea (Jackson eta Martin, 1998; Pecora *et al.*, 2006, apud López *et al.*, 2013). Esandakoarekin bat eginez, Courtney-k eta Dworsky-k (2006) babespean mantendu ziren gazteen emaitzak atera ziren horienak baino hobeak izan zirela frogatu zuten. Testuinguru honetan, DBHri dagozkion ohiko lau bide daude (Montserrat eta Casas, 2012): 1) Ikasketako lanbide-ibilbide bati ekin eta ibilbide hori osatu gabe utzi zutenak; 2) DBH amaitu ondoren araututako hezkuntza-ibilbiderik jarraitu ez zutenak; 3) Prestakuntza akademikoari ekin ziotenak, baina lanbide-heziketara igaro zirenak eta; 4) Ikasturtea errepikatzearen ondorioz atzerapena izan dutenak baina ikasten ari direnak.

Generoari erreparatuz, neskek errendimendu baxua edukitzeko arrisku txikiagoa dute; mutilen eskola uzteko arriskua, berriz, handiagoa da (Forsman *et al.*, 2016; Chow *et al.*, 2017). Orokorrean, gazteek ibilbide profesionalak lehenesteko joera handia dute eta, kasu batzuetan egokia izan daitekeen arren, sarritan institutuen zurruntasunaren edo buruaskiak izateko nahiaren ondorio dela dirudi (Montserrat eta Casas, 2012; Jackson eta Cameron, 2012). Horiek horrela, langabezia ohikoa da, %30-40k baino ez baitu DBH amaitu (Goyette, 2010; González-Navasa, 2018; Martin *et al.*, 2020). Bestalde, %86,8-a dibertsifikazioko programetatik dator (Melendro, 2011). %82,4ri ikasten ari dena gustatzen zaio eta %88,2k etorkizunean ikasten jarraitzeko asmoa du (Melendro, 2016). Euren familietan bizi diren haurrentzat unibertsitatera joatea esperientzia arauemailea bihurtzen ari da. Agintariek artatutako haur gehienentzat, berriz, honek urruneko ametsa izaten jarraitzen du. Babespean dauden haurretako batzuek lehen urteetan unibertsitatera joan nahi duten arren, nerabezaroan helburu hau gutxitu daiteke (McNamara *et al.*, 2017).

Nerabeek, ikasketa-eremua aukeratzeko zailtasunaz gain, 18 urteak betetzean gertatzen den babes-formalaren murrizketa goi-mailako hezkun-

tzan parte hartzeko oztopotzat jo zuten (Dinisman eta Zeira, 2011; McNamara *et al.*, 2017). Dena den, goi-mailako hezkuntzaren baitako partaidetza sustatu beharko litzateke, babespean dauden haur nahiz nerabeei ondoko onurak ekarri baitiezaizkieke: langabezia-tasa txikiagoak, laneko baldintza hobekak (Fernández-Simo eta Cid, 2018), harremanen nahiz osasun mentaleko arazoekudeaketa aktiboagoa (Goyette, 2010) eta bizi-kalitate hobea (Jackson, 2010).

Ikasketaren sustapena kolektibo honen etorkizuna hobetzeko esku-hartzeetako bat izan daitekeen arren, ekintza espezifikorik ez egoteak ibilbide akademikoen bilakaera baldintzatzen du (Forsman *et al.*, 2016; Fernández-Simo eta Cid, 2018; Fernández-Simo *et al.*, 2019). Beraz, agintariak erantzukizun berezia dute: ahalik eta gehien gaitzeko aukerak eskaintzearena, hain zuzen ere (Jackson eta Ajayi, 2007). Gakoetako bat laguntza ekonomikoa nahiz emozionala ematean datza (Martin eta Jackson, 2002).

Helduarorako trantsizioan laneratzeak garrantzia handia du: dimentsio ekonomikoa edukitzeaz gain (Rodríguez-Bravo *et al.*, 2016), norberaren gogobetetzea eragiten baitu (Díaz, 2014; Krahn *et al.*, 2021). Baina pertsona batek zenbat eta prestakuntza gutxiago izan, lan egonkorra edukitzea orduan eta zailagoa da, eta babes-sistematik atera diren gazteen hezkuntza-ibilbidea motzagoa izan ohi dela aipatu da (López *et al.*, 2013; Fernández-Simo, 2017). Gainera, kokapenaren etengabeko aldaketei eta nahasmen psikologikoen tasa altuagoei ez ezik (Dixon, 2007, apud Soldevila *et al.*, 2013), egungo egoera ekonomiko konplexuari aurre egin behar diote (Rodríguez-Bravo *et al.*, 2016; Krahn *et al.*, 2021). Gazte migranten kasuan, laneratzea are nekezagoa da, askori lanerako baimena falta zaielako edota prestakuntza nahikorik ez dutelako (Comasòlivas *et al.*, 2018). Dena den, Santanak eta kideek (2018) diotenez, enpleguaren bilaketan gazte migrantek autonomia goak dira eta motibazio handiagoa dute gazte nazionalak baino.

Krahn-ek eta bere kideek diotenez (2015), aipaturiko ezegonkortasunak epe luzera ondorio negatiboak ditu, hala nola: kapital sozial txikiagoa, enplegatzaileei seinale negatiboak bidali diezaizkieteketen etenez jositako curriculumak eta, norberarengan konfiantza murriztearen ondorioz, enplegua bilatzeko jokabide ez hain arrakastatsuak. Egun, gazte extutelatu gehienek ostalaritzan lan egiten dute eta askori lanean egiten dutena gustatzen zaie (Melendro, 2016; González-Navasa, 2018). Dena den, euren soldata premiak asetzeko eskasegia dela diote (Goyette, 2010). Horiek horrela, lana eta egungo egoera ekonomikoa euren kezka nagusietako batzuk dira (Melendro, 2011).

2.2. Osasun Fisikoa eta Mentala

Osasuna aztergaitzat hartuz, babes-sistema utzi duten gazteen kopuru handi batek osasun fisikoari nahiz mentalari dagozkion zenbait ara-

zoei aurre egin behar diete, eta horiek lana aurkitzeko edota harremanak ezartzeko aukeretan eragin negatiboa izan dezakete (Courtney eta Dworsky, 2006; López *et al.*, 2013). Montserrat eta Casasen ikerketan (2012), berriz, gazteek euren osasuna ona zela erantzun zuten. Bestalde, gazte hauentzat estres-iturri ugari daude: ikasketetan arreta jartzea eragozten dieten arazo ekonomikoak, ikasteko denbora urria edo familia biologikoari dagozkion harreman-arazoak, adibidez (Hollingworth eta Jackson, 2016). Beraz, kolektibo honi arreta psikologikoa ematea funtsezkoa da (Martín *et al.*, 2020).

Babes-sistematik ateratako gazteen ongizateari dagokionean, garrantzia handiagoa dute orainaldiko baldintzek iraganeko esperientziek baino (Dixon, 2008). Horiek horrela, gehiengoak egun babes-zentroan zegoenean baino hobeto dagoela uste du (Melendro, 2011; 2016). Hala ere, gazte extutelatuen asebetetze-maila biztanleria normalizatuarena baino txikiagoa da, eta kausa ezberdinak daude: bai iraganean atxikimenduzko loturak eduki ez izana (Melendro *et al.*, 2020) eta baita babes-sistema uzteak suposatzen duen euskarriaren galera ere (González-Navasa, 2018; Martín *et al.*, 2020). Bestalde, ongizate-maila baxuagoaren beste arrazoietakoa bat denbora-tarte txikian bizitako egoitzaren edota eskolaren aldaketa-kopuru ugaria da (Schütz *et al.*, 2015; Llosada-Gistau *et al.*, 2017). Ongizate-maila handiagoaren nahiz autonomiaren artean elkarrekintza dago eta, aldi berean, Melendrok eta bere kideek (2020) autonomiaren eta bizitzako helburuaren artean korrelazio esanguratsua aurkitu dute. Dena den, gazte extutelatu askok autonomiari dagokion lanketa urria adierazi dute: erabakiak hartzean partaidetza galarazi zaielako batetik, edo gehiegi babestu zaieneko sentimendua dutelako bestetik (Soldevila *et al.*, 2013; Hollingworth eta Jackson, 2016; Fernández-Simo eta Cid, 2018). Montserrat eta Casasek diotenez (2018), partaidetza-maila informazio-etapan handiagoa da erabakiak hartzerakoan baino; beraz, egile hauen hitzetan haurraren zentratutako ikuspegia sustatu behar da, ikuspegi hori kasuen ebaluazioan txertatuz eta euren iritziak modu eraginkorrean kontuan hartuz.

2.3. Sare Soziala

Babes-neurriaren iraupena zenbat eta handiagoa izan, gazteen pertsonarteko gaitasunak orduan eta gehiago kaltetzen dira. Babespean luzaroan egoteak gazteen gaitasun emozionalak nahiz sozialak kaltetu ditzake, honekin batera, helduarorako trantsizioa oztopatuz (Oriol *et al.*, 2014). Batetik, babespean dauden gazteek gizarte-babes txikiagoa hautematen dute (Bravo eta Del Valle, 2003, apud López *et al.*, 2013). Bestetik, egoitzek ez dituztela euren behar emozionalak asetzen diote (Soldevila *et al.*, 2013). Aitzitik, aipaturiko gaitasunak gizarte-babeseko sarea osatzeko gakoa dira eta, aldi berean, gizarte-babeseko sareak helduarorako trantsizio arrakas-

tatsu bat sustatu dezake (Soldevila *et al.*, 2013; Goyette *et al.*, 2016). Ildo beretik, gaitasun hobee eta sare sendo batek gazteengan ongizate handiagoa eragin dezakete (Dixon, 2008). Martínek eta bere kideek diotenez (2008a), berriz, egoitza-harrerako neurriak ez du zertan familiarterako lotura kaltetu behar eta, are gehiago, batzuetan hobetu daiteke. Zentzu berean, adituek egoitzen aldaketa sarriak presazko edo hiruzpalau urteko egonaldi batek baino ondorio kaltegarriagoak izan ditzakeela diote (Campos, 2013; González-Navasa, 2018).

Osasunari dagokion atalean esan bezala, egoitza-harreran dauden haur eta nerabeen ongizate baxuagoaren arrazoiertako bat denbora-tarte laburrean bizitako aldaketa ugariak dira (Schütz *et al.*, 2015; Llosada-Gistau *et al.*, 2017). Izan ere, Fang-ek eta bere kideek diotenez (2018), emozio positiboak testuinguru egonkorretan gertatzen dira. Aitzitik, errealitatea bestelakoa da (Del Valle *et al.*, 2008; Melendro, 2016).

Ikerketa desberdinek egoitzen aldaketek gazteengan eragin negatiboa izan dezaketela frogatu dute. Batetik, eskolako erritmoezikiko sentiberatasunik gabe egoitzarekin batera ikastetxez aldatu ohi dituzte (Jackson eta Martin, 1998; Jackson eta Cameron, 2012). Honek arretari dagozkion galerak edota absentismokoaldiak eragin ditzake (Hollingworth eta Jackson, 2016). Bestetik, egoitzaz edota eskolaz aldatzeak gaztearen sarearengan murritzeta esanguratsua dakar (Del Valle *et al.*, 2008; Campos, 2013). Adinean aurrera egin ahala familia-, bizitegi- eta eskola-testuinguruetako helduek laguntza-hornitzaile izaten jarraitu ohi dute, baina ez afektuetan konfiantza-hornitzaile gisa. Jarraian babes-sisteman egon diren gazteen sare soziala osatzen duten eragileak definituko dira. Goyetten hitzetan (2010), orokorrean, sareak adin nahiz sexu bereko lagunez osatzen dira, eta ez dirudi tamainak gazteen ibilbidearengan eraginik duenik, bai aldiz «egokienak» ez diren lagunak izatea. Halaber, gazte askok laguntza ez eskatzeko asmo sendoa erakutsi zuten (Montserrat eta Casas, 2012; Melendro, 2016).

2.3.1. *Familia*

Jackson eta Cameronek (2012) babes-sistemara sartzen diren haur eta nerabeen familiako errealitatea irudikatu zuten, hala nola, guraso asko bananduta zeuden eta, honen ondorioz, haurrak ama ezkongabe batekin edo amarekin nahiz aitaordearekin etxebizitzaz sarritan aldatu ohi ziren, guraso batek edo biek gaixotasun mentalak edo substantziaren batekiko menpekotasuna zuten edota kalifikatu gabeko enpleguak zituzten edo gizarte-laguntzaren mende zeuden. Gazte askok guraso biologikoekin harremanetan jarraitzen dute baina, helduarorako trantsizioari dagokionean, amarengandik antzemandako laguntza-maila altuagoa da aitarengandik antzemandakoa baino (Galambos *et al.*, 2018). Dena dela, geroago azalduko den eran, adin-nagusitasuna betetzean senideen etxebizitzara bueltatzea aukera oso

ohikoa da (Courtney eta Dworsky, 2006; Del Valle *et al.*, 2008; González-Navasa, 2018; Santana *et al.*, 2018; Martín *et al.*, 2020). Beraz, Fernández-Simok eta bere kideek dioten bezalaxe (2020), sistematik atera ondoren zailtasunak egon ez daitezten, familiekiko gizarte- eta hezkuntza-ekintza bermatu beharko litzateke. Familiaren babesak ez ezik, hezitzaileen nahiz irakasleen afektuak askotariko testuinguruen baitako egokitzapena baldintzatu eta helduarorako prestakuntzarengan eragin positiboa eduki dezake (Goyette, 2010; Martín eta Dávila, 2008; Dinisman eta Zeira, 2011).

2.3.2. Egoitza-harrerako Baliabidea

Katalunian egindako ikerketa batean ondorioztatu zenez, egoitzako profesionalekin pozik dauden nerabeek ongizate subjektiboari dagozkion puntuazio altuagoak dituzte (Llosada-Gistau *et al.*, 2017). Hezitzaileen eta irakasleen aldetik jasotako afektuak, bestalde, eskola-egokitzapenari dago-kionean gaitasun prediktibo handia du (Martín eta Dávila, 2008). Aurrekoa berretsiz, Fernández-Simok (2016) hezitzaileen eta gazteen arteko harremana prestakuntza-xedeak lortzeko garrantzitsua dela dio. Gazteek eurek erreferente profesional egonkor baten garrantzia azpimarratu dute (Monsterrat eta Casas, 2012; Fernández-Simo *et al.*, 2020b). Dena den, gazte askok hezitzaileek ez zutela eskolan gertatzen zenaren inguruko interesik diote (Jackson eta Martin, 1998). Halaber, %65-%82'4ak egoitzako hezitzaileekin harremana duten arren (Melendro, 2011), horiek babes-iturriztat jotzen dituzten gazteen ehuneko txikia nabarmentzekoa da (González-Navasa, 2018; Martín *et al.*, 2020). Beraz, profesional hauek tutoretzapean dauden haur eta nerabeen gizarte-babesarako rola izan dezaten, baldintza egokiak sortu beharko lirateke: ratioak murriztuz edota taldea mantenduz, adibidez (Martín eta Dávila, 2008).

2.3.3. Testuinguru Hezigarri Formalak eta Ez-formalak

Arlo akademikoan haurren ehuneko handi batek harremanak ezartzeko zailtasun handiak ditu (Martín *et al.*, 2011). Dena den, Martínek eta bere kideek diotenez (2008b), harremana esparruaren araberakoa da. Izan ere, zeregin akademikoak egiteko gainerako ikasleak baino baztertuagoak dira; aisialdiko jardueretan, berriz, ez da alde nabarmenik ikusten. Egile beren hitzetan arrazoia ikaskideek instrukzio-jarduerak garatzeko negatiboak diren ezaugarriak egozten dizkietela da. Honekin batera, adituek normalizazioaren beharra aditzera eman dute, babes-sisteman egoteak estereotipo negatiboetan oinarrituriko estigmatizazio-prozesu bati hasiera eman baitiezaioke (Martín eta Jackson, 2002; Montserrat eta Casas, 2012). Eskolako gizarte-isolamenduak etorkizuneko arazoak aurreikusten dituenek, kolektibo hau eskolako testuinguruan integratzeko esku-hartzeak egiteko lehen urratsa arazo horiek dituzten haurren kasuak identifikatzea izango da.

Testuinguru hezigarri ez-formaletan, berriz, babes-sistemako haur nahiz nerabeek ez dituzte harremanak ezartzeko eskolan bezainbesteko zailtasun (Martín *et al.*, 2008b; Martín *et al.*, 2011). Gainera, aisialdiko jardueren sare sozialak zabaltzeko eta eredu gisa jardun dezaketen helduekin harremanetan jartzeko balio berezia dute (Jackson eta Cameron, 2012). Martínek eta Dávilak (2008) berdina defendatzen dute, jarduera horietan haurrek erreferentetzat hartu nahi dituzten helduak aukeratzeko nolabaiteko gaitasuna dutela baitiote. Babes-sistematik atera diren gazteei dagokienean, euren zaletasun nagusiak kirola egitea, lagunekin edo bikotekidearekin geratzea eta parrandan ateratzea dira (Melendro, 2011), haien adineko beste edozein pertsonak egingo lituzkeen jarduera berdinak, alegia (Montserrat eta Casas, 2012). Dena den, ekintzetara joatea komenigarria den arren, erakundeek horiek bigarren mailako premiatzat jotzeak eta baliabide ekonomiko gutxi edukitzeak parte hartzeko borondatea mugatzen dute (Fernández-Simo eta Cid, 2017). Beraz, Martínek eta Jacksonek zioten moduan (2002), kolektibo honek denbora-pasetan aritzeko babesa jaso beharko luke.

2.3.4. Bizitegi-egoera

Egoitzatik ateratzean, baztertzailak ez diren bi joera daude: denbora laburrean ostatur sarritan aldatzea batetik, eta, planifikatu gabe, familiaren etxebizitzara bueltatzea bestetik (Cuenca *et al.*, 2018). Prestakuntza handiagoa duten gazteen etxebizitzari dagokion egonkortasuna handiagoa da prestakuntzarik ez dutenena baino (Fernández-Simo eta Cid, 2018). Horiek horrela, Goyetten hitzetan (2010), egonkortasun hau lana eta ikasketak mantentzeko sine qua non baldintza da. Aitzitik, gehiengoaren lehen aukerak porrot egin ohi du (Campos, 2013). Batzuetan gazteek etxebizitza tutelatuetan bizitzeko aukera duten arren, orokorrean, babes-sistematik ateratzeko gogoak gazte ugari adin-nagusitasuna betetzean planifikatu gabeko irteerak burutzea daramatza (Santana *et al.*, 2018; Fernández eta Cid, 2018). Bakarrik bizi diren gazteen kopurua %10-ekoa da eta, beraz, gehiengoak senideekin edo pisukideekin etxea partekatzen du (Melendro, 2011). Senideen etxebizitzara bueltatzea aukerarik ohikoena da (Courtney eta Dworsky, 2006; Del Valle *et al.*, 2008; González-Navasa, 2018; Martín *et al.*, 2020).

Babes-sistemara sartu aurretik haur gehienek familia-osaeran aldaketak nahiz krisiak bizi ohi dituzte (Hollingworth eta Jackson, 2016) eta, adin-nagusitasuna betetzean, gazteen erdiak bere burua iraganean desegokitzen jotako testuinguruetara itzultzera beharturik ikusten du (Campos, 2013; Santana *et al.*, 2018). Martínek eta kideek (2020) buruturiko ikerketaren arabera %30a bakarrik edo bikotearekin bizi da, %15ak pisua partekatzen du eta familia zabalarekin bizi diren gazteen kopurua ez da %9ra iristen. Gazte migranteen kasuan, jatorriko herrialdera itzultzea ez da aukeretako bat, porrot gisa hartzen baitute (Comasòlivas *et al.*, 2018). Horiek horrela,

gazteen helduarorako trantsizioan familiek parte hartu behar dute, gehiengazteak euren etxeetara bueltatzen baitira (Martín *et al.*, 2020). Camposen hitzetan (2013) familiak babesik ematen ez zuen edota txikiak psikologikoki kaltetzen zituen kasuetan itzulera kaltegarrienak ematen dira; beraz, egileak adin-nagusitasuna duten eta babesgabezia dauden gazteentzat baliabideak egon behar direla dio.

2.4. Helduaroko Trantsizioa

Babes-sisteman egon diren gazteen helduarorako trantsizioa etapa bereziki konplexua da, Hollingworth eta Jacksonek diotenez (2016), epe laburrean erronka askori aurre egin behar baitiete: aurrekontu bat egiten ikastea, ikastaroak hasia, enplegua topatzea edo familiako harremanak kudeatzea, besteak beste. Melendroren hitzetan (2016), gazteen %77,8ak helduarorako prestakuntza-programaren batean parte hartu du. **Egoitza-zentroa** uzteko unea estresagarria da eta, lehen asteetan euforia sentitu dezaketzen arren (Fernández-Simo eta Cid, 2018), errealitateak bakarrik (Melendro, 2011) eta beldurraren mende sentitzera daramatza (Montserrat eta Casas, 2012; Campos, 2013). Beste erronketako bat zerbitzuertarako sarbidea galtzearena da eta batzuek, gainera, migratzaile izateak suposatzen duen ziurgabetasunei aurre egin behar diete (Hollingworth eta Jackson, 2016).

Adituek babes-sisteman egondako gazteen helduarorako trantsizio arakastatsu bat aurreikusten duten zenbait aldagai identifikatu dituzte, zeinak jarraian aipatuko diren. Arlo akademiko eta profesionalari dagokionez, eskolak gazteak DBH amaitu dezan motibatzea, ikasten jarrizteko bekak nahiz laguntza pertsonalizatua ematea eta lan-egonkortasuna zein independentzia ekonomikoa edukitzea (Melendro, 2011; Montserrat eta Casas, 2012; Fernández-Simo *et al.*, 2020a; Martín *et al.*, 2020) aipatzekoak dira. Bizitegi-egoerari erreparatuz, trantsizio arakastatsua egin duten gazteek etxebizitza egonkor eta duina dute (Melendro, 2011). Beraz, etxebizitzaren arloan laguntzeko zerbitzuak beharrezkoak dira (Montserrat eta Casas, 2012), eguneroko bizitzako arazoak arindu eta ikasketetan kontzentratzeko aukera ematen baitiete (Jackson eta Cameron, 2012). Ongizateari eutsiz, aipatzekoak dira bai autonomia pertsonala (Fernández-Simo *et al.*, 2020a) eta baita egonkortasun emozionala ere (Melendro, 2011). Gizarte-babesari helduz, amaren laguntzak (Galambos *et al.*, 2018), hezkuntza-sisteman integratutako babes-sistematik kanpoko lagunek eta eurekin hitz egiteko denbora hartu duen erreferentziatzko heldu egonkor baten presentziak (Jackson eta Martin, 1998; Martin eta Jackson, 2002; Montserrat eta Casas, 2012; Hollingworth eta Jackson, 2016) ezinbestekoak dirudite. Heldu honek, zehazki, hezkuntzari lehenetsua ematen dio eta ikasketak formalei dagokien arloan itxaropen handiak ditu (Montserrat eta Casas, 2012). Etorrizuneko itxaropenekin amaitzeko, bizi-proiektua izatea eta egonkortasuna

edukitzeko nahiz familia sortzeko nahia (Melendro, 2011; Hollingworth eta Jackson, 2016) aldagai garrantzitsuak dira.

3. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Lan honen helburu nagusia Gipuzkoako Egoitza-harrerako Saretik ateratzen diren gazteen helduarorako trantsizioa euren esperientzietatik ezagutzeta da. Honekin, beraien esperientziak eta bizitzako eremu desberdinetako gaur egungo egoera zer nolakoa den ezagutu nahi da.

3.1. Metodologia

Lan hau paradigma interpretatibotik burutu da, Gipuzkoako Egoitza-harrerako Saretik ateratzen diren gazteen helduarorako trantsizioa euren esperientzietatik ezagutu nahi baita. Paradigma interpretatibotik ez ezik, kritikotik burutu da, esperientzia horiek baliatuz hobekuntzak proposatu baitira. Ikuspegi honen ezaugarria ez da soilik errealitatea ikertzea eta ulertzea, testuinguruan eraldaketak eragitea baizik (Melero, 2011). Maila metodologikoari begira, datu narratiboen bidez fenomeno jakin baten inguruko ezagutza sakona lortzea ahalbidetzen duen metodologia kualitatiboa baliatu da (Gay, 1996, apud De Pelekais, 2000).

Informazio jasoketarako teknika gisa, elkarrizketza erdi-egituratua aukeratu da, non partaide guztiekin gidoi bera erabili daitekeen arren, galderen ordena ez den halabeharrez jarraitzen (Trindade, 2016). Partaideen disponibilitatea kontua dela eta, bi elkarrizketa indibidual eta sei talde-elkarrizketa burutu dira.

3.1.1. Partaideak

Zortzi izan dira elkarrizketatutako gazteak, zazpi mutil eta neska bat, elur bolaren teknika bidez erreklutatuta. Beraien batez besteko adina 19,75 urtekoa da, 18 urte gazteenak eta 22 zaharrenak. Jatorriari dagokionez, bat ezezik guztiak marokarrak dira. Gazte guztiak Gipuzkoako Egoitza-harreran artatuta zeudela igaro ziren nagusitasunera. Partaide guztiak, Euskal Herrian jaio zen bat izan ezik, familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaile marokarrak dira. Zortzi gazteetatik sei Gipuzkoako babes-sistemara 18 urteak betetzear sartu ziren. Horietatik, hiruren lehenengo helmuga Donostia izan zen, gainontzekoak beste hiri batzuetan egon ziren bexalaxe (Melilla, Torremolinos, Madril edo Katalunia, besteak beste). Babes-sistemara 18 urteak betetzear zeudela sartzearen ondorioz, egoitzen-aldaketa kopurua txikia izan da, eta batzuek larrialdiko etxebizitza baino ez dute ezagutu. Beste bi gazteak, berriz, Gipuzkoako babes-sistemara 9 eta

10 urterekin sartu ziren. Beraz, egoitzen aldaketa-kopuru handiagoa bizi izan dute: emantzipazioko pisua kontuan hartu gabe, lau eta hiru aldaketa, hurrenez hurren.

Hezkuntza mailari dagokionez, DBH-ko titulua zortzi gazteetatik hiruk baino ez dute eskuratu, besteek Oinarritzko Lanbide Heziketako kurtso batean matrikulatuz. Aipatu beharra dago gazte migratzaile biren kasuan, beraien jaioterrian ikasketak egiteari utzi behar izan ziotela lan egiteko.

4. DATUEN ANALISIA

Landa lanean jasotako informazioa kategorizatzeke orduan metodo mistoa baliatu da: aldez aurretik aurreikusten ziren kategoriak egokitzea edota berriak eranstea ahalbidetzen duena, alegia. Horiek horrela, ordena kronologiko bati erantzuten dioten bi dimentsio nagusi daude: helduarorako trantsizioa eta orainaldia. Hauek aldi berean kategorioa eta azpikategoria desberdinetan banatuta daude (ikus 1. taula).

1. taula
Informazioaren kategorizazioa

Dimentsioa	Kategoria	Azpikategoria
Helduarorako trantsizioa	Prozesua. Aukerak. Mugak.	
	Bizitegi-egoera. Arlo akademiko eta profesionala.	
Orainaldia	Sare soziala.	Familiarteko esparrua. Egoitzako esparrua. Testuinguru hezigarri formalak eta ez-formalak. Lagunarteko esparrua.
	Ongizate orokorra.	Ongizate fisikoa. Ongizate psikologikoa. COVID-19aren eragina.
	Aurreiritziak.	

Egileak sorturikoa.

5. EMAITZAK

5.1. Lehenengo Dimentsioa: Helduarorako Trantsizioa

Helduarorako trantsizioari dagokion dimentsioan prozesu honek dakartzan bizipenei, etxebizitzaren nahiz prestakuntzaren arloan edukitako aukerei eta, azkenik, aurre egin behar izan dieten mugei buruzko informazioa biltzen da. Hau azaldu ahal izateko, hiru kategoria sortu dira: prozesua, aukerak eta mugak.

5.1.2. *Prozesua*

Prozesuari dagokion kategorian gazteek hiru une bereizi dituzte: egoitza-harrerako baliabidetik ateratzeko gogoak ote zituzten, horretarako prest ote zeuden eta baita nola sentitu ziren ere. Hasieran, gehienak egoitzaatik ateratzeko gogotsu zeuden, Anas¹-en «todos queríamos salir» edo Najim-en «¿cuándo viene este día para salir?» esaldiak honen adierazle izanik. Dena den, honek ez du esan nahi horretarako prest zeudenik.

Siriak adin-nagusitasuna unibertsitateko hautaprobekin alderatzen du: «¿Es como cuando estás en bachiller y se habla todo el rato de selectividad? Pues los 18 son como eso». Guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, helduarorako prestakuntza jaso dutela adierazi dute. Hala ere, honakoa etxeko lanetara eta lan- nahiz ekonomia-arloko kudeaketetara mugatu da. Yassin-ek «Te enseñan la limpieza y a hacer la cama» dio. Hala ere, gazte gehienek ez zeudela prest edo, Andoniren kasuan bezalaxe, prest egotera «derrigorturik» zeudela diote. Abdel-i, adibidez, bere urtebetetzean bertan egoitza utzi behar zuela esan zioten: «a las cinco de la mañana de mi cumpleaños, yo estaba durmiendo y me dijeron: fuera». Horiek horrela, euren testigantzetan bi sentimendu gailendu dira: ziurgabetasuna eta beldurra, alegia. Gazteen hitzak gurera ekarriz: «no sabes dónde ir» (Abdel); «¿y ahora qué va a pasar?» (Siria) edo unibertsitatea ordaintzeko gai izango ote zen zalantza zuen gaztea: «fue duro pensar que son mil y pico euros de universidad» (Alex).

5.1.2. *Aukerak*

Kategoria honetan bizitegiari, terapia psikologikoari eta prestakuntzari dagozkion aukerak jasotzen dira. Siriak dionaren arabera, gaizki pasa zuen, ez baitzekien etxebizitzarik edukiko ote zuen: «Justo en la temporada en la que yo salía se quitaron las prórrogas y no había plazas». Gainera, bi iradokizun egin zizkieten: konfiantzarik ez duen anaiekin joatea edo aurrezkie-

¹ Gazteen izenak ezizenak dira. Beraien anonimatua bermatze aldera, gustuko zuten ezizen bat proposatzea eskatu genien ikerketan erabiltzeko eta beraien zitak aurkezteko.

kin ostatu bat ordaintzea, hain zuzen ere. Azkenean, luzapen baten ostean, emantzipazio pisu batera joateko aukera eman zioten:

«Precisamente porque había hecho bien las cosas, hicieron como un caso especial, y me dieron una prórroga. Al final me fui a un piso de emancipación (...). A mí no me ha aportado mucho, por no decir nada. Me ha aportado la casa que necesitaba en ese momento, que aprendí a cocinar y que aprendí a gestionar dinero.»

Gainontzekoek, berriz, aukera ezberdinak eduki zituzten: lau kalean nahiz aterpeetan egon direlako, bi erakunde bateko pisuetan daudelako (bat kalean nahiz aterpeetan egon den horietako bat izanik) eta hiruri emantzipazioko etxebizitzak eskaini zitzaizkielako. Terapia psikologikoari erreparatuz, bi gazteek erabili ahal izan zuten: bai Anas-ek eta baita Siriak ere. Lehenak psikologoak lasaitu nahi zuela dio. Bigarrenari, berriz, babes-sistematik atera zenean urritzat jotzen duen 9 saioko luzapena egin zioten. Prestakuntzari dagozkion aukerekin amaitzeko, bi gazteek Arrakasta programan² parte hartu dute. Biek, honengatik izango ez balitz, ez liratekeela unibertsitatean engongo diote.

5.1.3. *Mugak*

Partaideek helduarorako trantsizioan antzemandako zenbait mugen berri eman dute. Batetik, sei gazteri prestakuntza jasotzea gustatuko zitzaien: bai bulegotikaren ingurukoa eta baita curriculumaren lanketari begirakoa ere. Prestakuntzaren harira, Yassin-ek zera dio: «Igual nos deberían enseñar cómo funcionan las cosas fuera: cómo es la cultura, cómo es la gente...». Bestetik, egoitzatik ateratzean «paperak» eta lana behar zizutela diote. Bestalde, batzuk ez ziren hezitzaileekin konektatzera iritsi, hau Siriaren kasua izanik. Bere hitzetan:

«En el piso de emancipación tengo el recuerdo de que no me motivaban. De hecho, al revés, me desmotivaban. Mismamente, típico que en Bachiller te presentas a subir nota, ¿no? Pues yo me acuerdo que la única discusión que tuve en ese sitio fue porque una educadora me empezó a preguntar «¿y por qué vas a hacerlo? No te hace falta.»

Gazte berak egoitza-harrerako baliabideetan gehiegizko babesa dagoela dio. Izan ere, 18 urteak betetzean, gazte gehienek erabateko zaurgarritasun-

² Arrakasta programa UPV/EHU eta hiru Aldundiek sortutako programa aitzindari bat da, zeina haur eta nerabeen babeserako eta gizarte inklusiorako sistemen barruan dauden gazteek unibertsitatean sartzeko eta goi mailako ikasketak arrakastaz bukatzeko aukera izan dezaten sortu den (<https://www.ehu.eus/eu/web/ikasleak/arrakasta>).

naekin topo egiten dute. Bere kasuan, adibidez, ordura arte izandako erosotasun batzuei uko egin behar izan zien:

«Tuve que dejar Crossfit porque no se contempla en absoluto. Pero bueno, igual que los estudios, que nunca he sentido que los consideren prioritarios. Si yo tengo que pagar una academia, ¿cómo lo hago? O un psicólogo. A mí me hubiera encantado seguir yendo al psicólogo, pero no podía permitírmelo.» (Siria)

5.2. Bigarren Dimentsioa: Orainaldia

Orainaldiari dagokion dimentsioan egoitza-harreran dauden haur nahiz nerabeen inguruko aurreiritziak jasotzen dituen kategoria sortu da. Honekin batera, ongizateari dagokion kategoria hiru azpimultzoetan banatu da: ongizate fisikoa, psikologikoa eta, azkenik, COVID-19aren eragina.

5.2.1. Bizitegi-egoera

Zortzi gazteetatik bi aterpeetan, bi erakunde bateko etxeetan, bi partekaturiko pisuetan eta bi emantzipazioko pisuetan bizi dira. Batetik, aterpean bizi den Yassin-ek eguna bertatik kanpo eman behar dutela dio eta, ondorioz, Abdel-ek parkean liburuak irakurri ohi dituztela eranstean du: «Durante el día, como no puedo estar en el albergue, leo libros en el parque». Bestetik, Anas eta Najim erakunde bateko pisuetan bizi dira. Bestalde, erakunde baten laguntza jasotzen duen Rafa eta Gizarteratzeko Laguntza Ekonomikoa eta Arrakastaren 50 euroko plusa jasotzen dituen Siria partekaturiko pisuetan bizi dira. Azkenik, Andoni eta Alex emantzipazioko pisuetan daude, urtebetez eta zortzi hilabetez hurrenez hurren. Alex-ek, zehazki, txikien pisuan egotetik emantzipazioko pisu batean egotera aldatzea nabaritu du:

«He notado mucho cambio de un piso de menores a uno de emancipación, sobre todo, por las exigencias que se le piden a la gente. Es decir, porque tú en un piso de menores estás obligado. (...). En cambio, en un piso de emancipación si no cumples con unos requisitos, no estás. Por lo tanto, eso hace que haya una atmósfera más positiva o más constructiva.»

Bestalde, gazteetako batzuek euren egoera ekonomikoaren inguruan hitz egin dute. Alex-ek, adibidez, emantzipazioko pisuan 350 euro jaso ditzake. Horietatik 200 oinarrizko premiak asetzeko, 100 beste gastu batzuetarako eta 50 aurrezkietarako dira. Honetaz gain, gazte berak (Alex) ez duela pagarik dio, bere ustez oinarrizko premiatzat jo beharko litzatekeen

akademia batean gastatzen duelako: «Entonces, esos 100 euros de paga no son reales, porque ahí entran muchas cosas». Siriari, berriz, urtebete barru Gizarteratzeko Laguntza Ekonomikoa amaituko zaio. Dena den, ez du uste Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI gisa ezagunagoa) eskatuko duenik, erabat burujabea izan nahi baitu:

«La gente me dice que estudie el año que viene, pero no, porque se me acaba la ayuda y es una estabilidad que ya no voy a tener. Puedes coger la RGI, pero no quiero más ayudas. A mí me gusta trabajar porque, cuando trabajas, no te dan la ayuda y es la forma que tengo de sentirme bien. Estoy muy cansada de ayudas. Quiero valerme al cien por cien por mí misma y no depender de nadie.»

5.2.2. Arlo Akademiko eta Profesionala

Zortzi gazteak ikasten ari dira: bost Sukaldaritzako eta Jatetxe-arloko Oinarrizko Lanbide Heziketa, bat Elektrizitateko eta Elektronikako Oinarrizko Lanbide Heziketa eta bi Unibertsitateko Graduak. Ikasketak gustukoak dituzten galdetzen zaienean, iritzi-banaketa dago, batzuk pozik daudelako baina beste batzuek beste zerbait ikastea nahiago luketelako (Rafa eta Najim-en kasuan, adibidez, eskola pribatuetan baino ez dagoen ile-apainketa). Dena dela, guztiek ikastearen garrantzia aipatzen dute: lanerako (Yassin, Abdel, Andoni eta Rafaren kasuan), bizitza egonkorra edukitzeko (Siriaren kasuan) eta laguntza eskatu nahiz erlazionatzeko (Anas, Najim eta Alex-en kasuan). Bestalde hiru gaztek Helduen Hezkuntza hasi zuten baina, ordutegien bateraezintasuna ikusirik, utzi dute.

Guztiak aktibo egotearen garrantzian bat etorri dira. Anas-ek «No puedes estar dormido todo el día, tienes que hacer algo», Alex-ek «Estar dos meses de verano tirado en la cama tampoco es plan» eta Siriak «En cuanto no estoy trabajando o estudiando me siento inútil» diote. Ildo honetatik, aurrezteko helburuarekin, egun bi gaztek baino ez dute lana egiten: Siriak zerbitzari gisa eta Alex-ek klase partikularretako irakasle gisa, hain zuzen ere. Ostalaritzan 18 urteetatik daramatzen Siriak zera dio:

«Me ha hecho ver que soy una persona que necesita trabajar. Por una parte entiendo cosas que antes no como, por ejemplo, las nóminas. Por otra parte, me ha aportado a nivel personal, porque la hostelería te exige ser sociable. También es verdad que (...) aguanto las justas. Me ha dado esa seguridad que antes no tenía.»

Gainontzekoen kasuan, lanean ez aritzeko arrazoi ezberdinak daude: hala lan-baimena iraungita edukitzea nola, erakunde bateko pisuetan bizi direnen kasuan, baldintza lanik ez edukitzea izatea. Anas-ek aurrekoa ho-

nela azaltzen du: «No puedes vivir en el piso e ir a trabajar. Te dan dos meses como mucho para ahorrar y después alquilar».

5.2.3. *Sare Soziala*

Partaideek euren lagunek bizitzako esparru ezberdinetan eragina izan dutela diote. Alex-ek, adibidez, eskolan ezagutu zuen lagun-taldeak familiarri dagozkion gaietan lagundu duela dio: «Me han ayudado con todos los temas familiares. O sea, he llegado a dormir en sus casas cuando lo he necesitado». Siriak, berriz, bere ibilbide akademikoarengan eragin dutela uste du: «Mis amigas han influido mucho en mi itinerario académico».

Orokorrean laguntza eskatzea kostatzen zaiela diote. Alex-ek, adibidez, zera dio: «Soy un poquito robot en ese sentido y peco de racionalizarlo todo. (...). Lo pongo todo un poco en perspectiva. Normalmente siempre estoy bien de cara al público». Siriak, halaber, ondokoa erantzun du: «Como he tenido tanta ayuda, me cuesta pedirla. Siento que estoy recibiendo compasión. Intento valerme por mí misma en todos los aspectos». Besteek ere, hurrengo azpikategorian azalduko den bezalaxe, senideei ez diete haien arazoek berri ematen.

5.2.3.1. Familiarteko Esparrua. Familia-erreferenterik gabeko gazte gehienek euren senideak faltan botatzen dituztela eta, ondorioz, egunero haiekin hitz egiten dutela diote. Hala ere, euren arazoek berri ematea kostatzen zaie. Zehazki, Rafak «No puedes decirle a tu familia que estás muy jodido» eta Yassin-ek «Tú sabes que tu familia lo está pasando muy mal y no te lo dicen» diote. Zortzi urtez bere familia ikusi gabe egon zen Siriarren harremana, berriz, ez da horren estua: «Tengo buena relación con mi familia, pero, por decirlo de alguna forma, es bastante distante. De hecho, yo a mi madre la tengo fijada en WhatsApp, porque si no se me olvida llamarla». Azkenik, Alex-ek familia biologikoa bere bizitzako esparrurik konplexuena dela dio: «Hay gente que si se cae tiene una familia que les va a levantar. Yo si me caigo con 24 años (...) no va a haber nadie que me levante o ninguna casa a la que volver».

5.2.3.2. Egoitzako Esparrua. Azpikategoria honetan gazteek egoitza-harrerako baliabideko nahiz egungo hezitzaileekin duten harremana jaso da. Batetik, lau gaztek egoitza-harrerako baliabideko hezitzaileekin harremana mantentzen dutela diote. Alex-ek, adibidez, bazkaltzera gonbidatu izan dutela dio: «Me han invitado muchas veces (...) pero no quiero. No por ellos, con los educadores me llevo muy bien, sino porque tengo que aguantar a ocho chavales». Siriak, halaber, hezitzaile asko erreferentetzat dauka: «He tenido muchos educadores que para mí han sido referentes. (...) Con una educadora, por ejemplo, me fui de viaje a Italia. Tengo educadores a los que puedo pedir ayuda. Otra cosa es que no lo haga, pero cuento con ellos». Aitzitik, ez da emantzipazio-pisuko hezitzaileak bisitatzera joan.

Bestetik, bi gaztek egungo hezitzaileen laguntza funtsezkotzat jo dute: bai Anas-ek eta baita Najim-ek ere.

5.2.3.3. Testuinguru Hezigarri Formalak eta Ez-formalak. Hezkuntzari dagokion azpikategoria honek bi esparru barne hartzen ditu: bai formalak eta baita ez-formalak ere. Batetik, OLH ikasten duten gazteek irakasleekin harreman ona dutela diote. Dena den, partaideetako batzuek aditzera eman dutenez, egoitza-harrerako baliabideetan hezkuntza formala ez da lehenesten. Honen ondorioz, egoitzarekin batera eskolaz aldatzeaz gain, nerabeak OLH bideratzeko joera dago. Egun egoitza-harrerako baliabideekin harreman estua duen Siriak honela dio:

«En (egoitza) estoy viendo muy claro que lo académico está en un segundo plano (...). Por ejemplo, ahora ha entrado un chaval al que han apuntado a cocina, y yo le decía “¿pero te gusta?” y él me decía que no. ¿En serio este es el valor que se le da a lo académico? Igual si priorizas la educación le estás dando una esperanza de vida.»

Agerian geratu denez, hezkuntza formalari ematen zaion lehenespene txikiaren arrazoia ehuneko handi samar batek DBHra iristen denean errepikatzen duela eta, honen ondorioz, espektatibak lasaitu eta Erdi Maila egiteko esaten zaiela da. Honekin batera, akademia baten aurrekontua ez dela terapiaren bizkortasun berarekin onartzen uste du. Bestalde, esparru ez-formalari erreparatuz, aterpe batean dagoen eta egun batzuk kalean ematen dituen Yassin-ek zentronen batean egoteko aukera eskaini beharko litzaiekeela dio:

«Creo que ya los hay (...). En Diputación te dicen “estás aguantando, estás haciendo las cosas bien”. Al final te llaman para decirte “nosotros no ayudamos a las personas que están bien de cabeza”. Pues igual tienes que empezar a tomar unas pastillas e ir allí a hacer algún gesto tonto para que te digan “esta persona está mal de cabeza, se va a volver loco”. No quieren que seamos buenas personas ¿sabes? Es que tienes que hacer el tonto para salvarte de esta situación.»

5.2.4. Ongizate Orokorra

Gehienek gaur egun babes-sisteman zeudenean baino hobeto daudela diote. Anas-ek, adibidez, arrazoia ondokoa dela dio: «Antes no tenía móvil y tampoco podía salir solo». Alex-ek, halaber, zera erantzun du: «La verdad es que mejor porque, como estaba en un piso en el que estaba tan mal, estar en un piso mil veces mejor es una maravilla». Ildo beretik, Siriak bere burua «autonomo» gisa definitzeak zoriontsu egiten duela dio. Ongizateari eutsiz, partaide askok kirolaren garrantzia azpimarratu dute,

bai fisikoki eta baita psikologikoki ere. Anas eta Najim-i, adibidez, futbolearen aritzea gustatzen zaie. Alex-ek, berriz, surfean 10 urte daramazki eta, gainera, gimnasia joatea nahiz igeri egitea gustuko du. Azkenik, Siriaren zaletasuna crossfit-a da. Dena den, babes-sisteman ez bezala 18 urteetatik aurrera gastu hauek eurek ordaindu behar dituzte, batzuetan ekonomikoki jasanezina izanik.

Ongizate Fisikoa. Partaide guztiek osasunez ondo daudela diote. Ildo beretik, Siriak kirolak bere osasunean izan duen eragina nabarmendu du, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere: «A nivel físico, por ejemplo, el deporte me ha ayudado siempre».

Ongizate Psikologikoa. Gazte hauek familiaren egoerak ongizate psikologikoan eragiten diela diote. Izan ere, Alex-ek dioen bezalaxe, ez dago haur edo neraberik egoera eroso edukitzeagatik babes-sisteman artaturik dagoenik. Dena den, batzuek terapiara joateko aukera emango balitzaie, baztertuko luketela diote. Batetik, Yassin-ek terapiara «burutik gaizki dauden pertsonak» doazela iradokitzen du. Bestetik, terapia astuna dela aditzera emanez, Anas-ek «me dan charlas» dio. Alex-en aburuz, berriz, terapia garrantzitsua da: «de hecho, creo que es algo que todo el mundo debería trabajar». Siriaren iritzi ere, bere ongizate psikologikoa hobetzen dute bai terapiara joateak eta baita kirolak ere. Dena den, gazte hauek diotenez, 18 urteak dituztenetik psikologora joatea zailagoa da babes-sisteman zeudenean baino.

5.2.5. COVID-19aren Eragina

Gazte hauek bizitzako esparru ezberdinetan COVID-19aren eragina antzeman dute. Anas-ek, adibidez, ondo etorri zitzaioela dio egoitza-harrerako baliabidean hiru hilabete gehiago geratzen utzi ziotelako: «Por el coronavirus he estado tres meses más, porque nadie podía estar en la calle. Tuve un poco de suerte». Abdel-ek, halaber, COVID-19aren ondorengo sei hileko diru-laguntza jasotzen du. Arlo akademikoan, berriz, oztopo bat izan da: burutzen ari diren ikastaroak nahiko praktikoak izanik ikasteari utzi behar izan ziotelako batetik edo, Alex-en kasuan, begirale izateko burutu beharreko praktikak bertan behera geratu zirelako bestetik. Honen harira, unibertsitatea hasi berri duen Alex-ek erlazionatzea konplexua dela dio: «Imagínate que llegas a una universidad donde no conoces a nadie y tienes que relacionarte con gente con mascarilla, sin poder hacer trabajos en grupo, con toque de queda... Es muy complicado». Amaitzeko Siriari COVID-19ak lan-eremuan eragin dio, azken lau urteotan taberna berean egon ostean, langileak Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientean (ABEE) daudela jakinda lan eske joatera atrebitzen ez delako.

5.2.6. *Aurreiritziak*

Partaideek kolektibo honen inguruan dauden aurreiritziak aditzera eman dituzte: bai, batzuen kasuan, euren jatorriagatik eta baita babes-sistemaren abegian egoteagatik ere. Jatorriari dagiokionez, Alex-ek ondokoa kontatzen du: «En mi grupo había un par de marroquís. Todos llevábamos mochila y les registraban a ellos. (...). Pasa un día, el mes que viene... La policía tiene un perfil y, si lo tiene la policía, lo tiene la sociedad». Pisuetan bizitzeagatik dauden aurreiritziei helduz, egoitza-harrerako baliabidea dagoen bizilagunen komunitatean giroa ez dela oso ona izaten diote. Alex-en hitzetan:

«No saben de tu vida, pero ya eres un liante. (...). O hay ruido y te llega un mensaje al día siguiente “oye, nos han dicho que ha habido ruido no se qué...”. Y no ha sido nada de tu planta. Para todo el vecindario ha sido el (solairua).»

Bizilagunen komunitatean ez ezik, babes-sistemaren abegian dauden haur nahiz nerabeen inguruko aurreiritziak gizartean orokorrean daude. Siriak, adibidez, duela ez horrenbesteko pasarte bat gogoan du:

«Y una vez discutí con un chico de *crossfit* (...) y le pregunté “¿pero tú qué sabes de los pisos?”. Y me contestó “ah, lo que me han contado”. Pues igual eso que te han contado no es verdad o igual eso que te han contado es lo malo. Y le dije “que sepas que yo, con quien te llevas súper bien, he estado muchos años en pisos. ¿Y a que no soy la imagen que tú tienes de un piso de menores?”.»

Zoritzarrez, Siriak dioen bezalaxe, imaginario kolektibo honek tutoretzapeko haur nahiz nerabeak bizimodu «normala» nahi izatera edota beldurra sentitzera daramatza:

«Yo con mis amigas, hasta que no pasó un tiempo, no les dije “estoy en un piso”. Y veo que eso se repite ahora. Me da mucha rabia que muchos niños no quieran quedar con sus amigos porque no quieren que la educadora vaya con ellos. ¿Por qué un niño tiene tanto miedo? Será por algo...»

Aitzitik, ez dirudi aipaturiko imaginario kolektiboa deseraikitzeke esfortzuak burutzen ari direnik. Siriak, adibidez, hedabideek eskuin muturreko alderdi batek Madrilen egindako azken kanpainari ahotsa eman diotela dio: «Si tenemos esos mensajes de odio y somos una sociedad llena de borregos en la que nos comemos con patatas todo lo que nos dicen, la gente no va a ser crítica». Alex-en elkarrizketan, halaber, hedabideek fa-

milia erreferenterik gabeko gazte migratzaile baten suizidioa Ibaiondoren argazkiarekin lotu zutenekoa agerian geratu da. Izan ere komunikabideek, besteak beste, kolektibo honen inguruan sustatzen duten irudi negatiboak gizarte-politikengan eragina du. Beraz, Siriak dioen moduan, irudi negatibo hori aldatu beharko litzateke: «Creo que debe eliminarse ya esa imagen de delincuentes. No es así y hay que normalizar los pisos de acogida».

6. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Atal honetan ikerketa honen emaitzarik esanguratsuenak ekarriko dira, arestian, oinarritapen teorikoan azaldutako ikerketa eta ekarpen esanguratsuenekin eztabaidatu eta ikerketa-ondorio nagusiak mahaigaineratuz.

Partaide gehienak familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileak izateak, kasu batzuetan, ibilbide ezberdinak egin izana berekin dakar. Bizitegi-egoerari dagokionez, adibidez, egoitzen aldaketa-kopuru txikia bizi izanaren arrazoia babes-sistemara 18 urteak betetzear sartu zirela da. Txikiagoak zirela sartu ziren bi gazteen kasuan, berriz, aldaketa gehiago bizi izan dituzte: emantzipazio pisua kontuan hartu gabe 3 eta 4 aldaketa, hain zuzen ere. Hau Del Valle eta bere kideen (2008) nahiz Melendroren (2016) emaitzekin bateragarria da, horien arabera, gazteen %60-ak gutxienez egoitzaren aldaketa bat bizi izan baitu. Desegonkortasun honek arazoak dakartzkie baita helduarorako trantsizioan ere, Jackson eta Cameron-ek (2012) diotenarekin bat eginez, etxerik edukiko ote zuten ez jakiteak ikasketetan kontzentratzea galarazten baitzien. Marko teorikoan esandakoaren kontra, adin-nagusitasuna betetzean ez da egon gazterik senideen etxera bueltatu denik, baina migranteen kasuan jatorriko herrialdera bueltatzea porrot gisa ulertzen dutelako da (Comasòlivas *et al.*, 2018). Horiek horrela, batzuek kalean edo aterpeetan lo egin behar izan dute. Gaur egun, aldiz, bi gazte aterpeetan, bi erakunde bateko etxebizitzetan, bi partekaturiko pisuetan eta bi emantzipazioko pisuetan bizi dira.

Arlo akademiko eta profesionalari begira, familia-erreferenterik gabeko gazteen erdiak baino gehiagok lehen hezkuntzako ikasketak dituela dio eta, Marokon lanean hasteko ikasketak utzi behar izan zituzten bi gazteen kasuan izan ezik, besteek ikasketaren bat dute. Hala ere, zenbait adituek dioten bezalaxe (Goyette, 2010; González-Navasa, 2018; Martín *et al.*, 2020), DBH amaitu dutenen kopurua txikia da: zortzi gazteetatik hiruk, alegia. Horiek horrela, euren testigantzetan ikasteari uzteko zenbait arrisku-faktore antzeman dira: hezitzaileen esparru formalarekiko itxaropen txikiak batetik eta, independentzia-ekonomiko goiztiarra lehenestearen ondorioz, nerabeak OLH-etara bideratzeko joera bestetik (Martín eta Jackson, 2002; Montserrat eta Casas, 2010; Jackson eta Cameron, 2012). DBH bukatu duten gazteen testigantzetan, berriz, zenbait babes-faktore ikusi daitezke: hezkuntzari garrantzia eman dioten erreferenteak, babes-sistematik kan-

poko lagunak, interes pertsonalen garapena eta bizitza independenterako prestakuntza, hain zuzen (Jackson eta Martin, 1998; Pecora *et al.*, 2006, apud López *et al.*, 2013). DBH eduki ala ez, Melendroren emaitzekin bat eginez (2016), partaide gehienei egun ikasten dutena gustatzen zaie. Hala ere, euren ametsetako lanbiderako prestatzen ari diren gazteak hiru besterik ez dira, gaitasun ekonomiko urria arrazoi nagusietako bat izanik. Hezkuntzarekin jarraituz, adin-nagusitasuna betetzean gertatzen den babes-formalaren murrizketa unibertsitatera joateko oztopoetako bat da (Dinisman eta Zeira, 2011; McNamara *et al.*, 2017), eta honakoa bi partaideen kasua dugu. Azkenean, Arrakasta programari esker, unibertsitatean ikastea lortu dute. Beraz, ikasten jarraitzeko bekak ematea (Montserrat eta Casas, 2012) eta egonkortasuna edukitzea (Goyette, 2010; Melendro, 2011; Martín *et al.*, 2020) faktore erabakigarriak dirudite.

Arlo akademikoak ez ezik, laneratzeak garrantzia handia du, partaideen gehiengoak —Díaz (2014) eta Krahn nahiz kideekin (2021) bat eginez— norbere gogobetetzea eragin dezakela uste baitu. Partaideetako bati, adibidez, ostalaritzan lan egiteak bere buruarengan segurtasuna eman dio. Ostalaritzaren harira, adituek babes-sistemaren abegian egondako gazteen artean honakoa sektore nagusia dela diote (Melendro, 2011; Melendro, 2016; González-Navasa, 2018). Aitzitik, gazte migranteen laneratzea nekezagoa da, EAEren kasuan %78,2-a administrazio-egoera irregularrean baitago (Comasòlivas *et al.*, 2018). Dena den, bost partaide Sukaldaritza eta Zerbitzuko Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasten ari direnez, sektore honetan lan egingo dutela aurreikusi daiteke. Egunduek lanean egon edo ez guztiak «aktibo» mantentzearen garrantzia azpimarratu dute, honekin batera, lana eta egungo egoera ekonomikoa euren kezka nagusietako bat direla erantsiz.

Sare sozialari helduz, babes ekonomikoa edota emozionala lortzeko ezin izan dute senideengana jo eta honek ondorio negatiboak dituela frogatu da (Campos, 2013; Santana *et al.*, 2018). Familia-erreferenterik gabeko gazteek, zehazki, honen arrazoia euren senideak ere gaizki pasatzen ari direla da (Courtney eta Dworsky, 2006; López *et al.*, 2013).

Familiaz gain, hezitzaileak gazte hauen sare sozialaren eragile garrantzitsuak dira. Horiek horrela, gazteek zenbait gaietan bat egin dute, hala nola, hezkuntza-taldearen egonkortasunaren garrantzia edota hezkuntza formalarekiko itxaropen altuagoen beharra. Elkarrizketatutako gazteetako batzuek ez dituzte hezitzaileak babes-iturriztat jotzen, emaitza honek beste ikerketa batzuekin bat egiten duelarik (Martín, 2011; González-Navasa, 2018; Martín *et al.*, 2020). Baina, sektorearen prekarietateaz jabetuta (Fernández-Simo *et al.*, 2017), desegonkortasunak konponbide zaila duela diote. Bestetik, Jackson eta Martin-ekin (1998) bat eginez, gehienek hezitzaileen aldeko motibazio txikia antzeman dute: horietako baten kasuan, batxilergoan nota igotzeko azterketara ez aurkezteko iradokiz, adibidez. Honen arrazoia askok errepikatzen dutela eta, ondorioz, Jackson eta Cameron-ek dioten bezala (2012) ibilbide profesionalak lehenetsi ohi direla da.

Aitzitik, eurengan itzaropena duen heldu egonkor baten presentziak ezinbestekoa dirudi (Jackson eta Martin, 1998; Martin eta Jackson, 2002; Montserrat eta Casas, 2012; Hollingworth eta Jackson, 2016; Fernández-Simo *et al.*, 2020b).

Sare sozialari eutsiz, partaideek testuinguru hezigarri formalen eta ez-formalen inguruan hitz egin dute. Partaide gehienak familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileak dira eta, beraz, babes-sistemaren abegian denbora gutxi egotearen ondorioz eskolen aldaketa-kopuru txikia bizi izan dute. Denbora gehiagoz egon diren gazteen kasuan, berriz, haurrak eta nerabeak eskolaz etengabe aldatzeko joera dagoela diote. Beraz, hau zenbait adituek diotenarekin bateragarria da (Jackson eta Martin, 1998; Jackson eta Cameron, 2012). Hala ere, etengabeko aldaketa hauek euren ongizatean eduki dezaketen eragina ikertzea interesgarria litzateke. Gaur egun, irakasleekin eta ikaskideekin duten harremana ona da. Aisialdiaren harira, Melendro (2011) eta Montserrat zein Casasek (2012) aditzera eman zuten moduan, euren zaletasunak oso ohikoak dira: kirola egitea edo lagunekin geratzea, alegia. Aitzitik, babes-sistemaren abegian egoteari utzi ziotenetik, zenbait zerbitzuei uko egin behar izan diete: kirol-jardueren harpidetzari, adibidez.

Sare sozialarekin amaitzeko, Montserrat eta Casas-en (2012) ikerketan bezalaxe, egoitzetan denbora luzeagoz egon diren gazteek ikasten ari diren babes-sistematik kanpoko lagunak edukitzearen garrantzian bat egin dute: ikasten jarraitu dezaten animatu baitituzte, besteak beste. Babes-sistemara sartzeko adina dena delakoa, berriz, gazte guztiak gauza batean ados daude: laguntza eskatzea kostatzen zaiela, hain zuzen. Beraz, zentzu honetan, ikerketa honen emaitzak Melendroren (2016) ekarpenetara hobeto egokitu dira Martín eta bere kideen (2020) ekarpenetara baino. Zehazki, bi arrazoi gailendu dira: nor bere kabuz moldatzeko beharra batetik eta senideak kezkatu nahi ez izatea bestetik (gaizki baitaude).

Ongizatearen inguruan galdetzean, bi azpigai bereizi dira: bai fisikoa eta baita mentala. Gazte guztiek osasun fisikoaz ondo daudela diote, eta emaitza hau zenbait adituek diotenarekin bateragarria da (Melendro, 2012; Melendro, 2016). Aldiz, egonkortasunik gabeko sektorea izateak eta emozio positiboak ingurune egonkorretan sortzen direla frogatu izanak (Fang *et al.*, 2018), ongizate mentalaren esparruan arazo handiagoak izan zitzaketela pentsarazten zuen. Aditzera eman dutenez, aipaturiko desegonkortasunak —hala profesionalena nola eurena— ongizatean eragin negatiboa izan du (adibidez, loturak sortzea oztopatuz). Aitzitik, zortzi gazteetatik terapia soilik hiruk jaso dute eta, horien artean, baliagarria izan zaiela bik baino ez dute uste. Adin-nagusitasunak askotariko estres-iturriak dakarzkien arren (Montserrat eta Casas, 2012; Hollingworth eta Jackson, 2016) eta, beraz, terapia psikologikoa ezinbestekoa dela uste bada ere (Martín *et al.*, 2020), batzuek saioak eskainiko balitzaizkieke baztertuko lituzketela diote. Onartuko lituzketela dioten gazteak, zehazki, babes-sisteman denbora luzeagoz egondakoak eta, beraz, aurrez terapia jaso dutenak dira. Baliteke hauxe te-

rapiarekiko estigma gutxiago edukitzearen arrazoa izatea. Hala ere, 18 urteak dituztenetik terapiara joatea zailagoa dela diote. Dena dela, gehienek hitzetan orain hobeto daude babes-sisteman zeudenean baino, eta honek alde zuzeneko ikerketekin bat egiten du (Dixon, 2008; Melendro, 2011; Melendro, 2016). Honen eraginez gisa orain daukaten autonomia handiagoa eta etxebizitzako giro hobea aipatu dituzte.

Egungo osasun-egoera medio, COVID-19ak gazte hauengan izan duen eragina aipatu gabe ezin dugu ongizatearen gaia amaitutzat eman. Horiek horrela, esparru ezberdinetan eragin die. Gazte bati, adibidez, egoitza-harrerako baliabidean denbora luzeagoz geratzen utzi zioten. Beste batek, halaber, COVID-19aren ondorengo diru-laguntza jasotzen du. Esparru akademiko nahiz profesionalean, aldiz, oztopoa izan da: konfinamenduan ikasteari utzi behar izan ziotelako edo, ostalaritzan lan egin izan dutenen kasuan, lan-eskaintzaren beherakada nabaritu dutelako. Era berean, erlazioatzea zailagoa suertatzen ari zaie.

Iraganeko eta orainaldiko egoeraz gain, euren bizitzetako inflexio-punturik handienetakoari buruz galdetu zitzaie: adin-nagusitasuna, hain zuzen. Melendrok (2016) gazteen gehiengoak helduarorako prestakuntza jasotzen duela dio eta, kasu honetan, gazte guztiak orain esandakoa berretsi dute. Dena den, nagusiki etxeko lanetara eta kudeaketa ekonomikora mugatu da. Euren bizipenei dagokienean, Fernández-Simo eta Cid-en (2018) ikerketan esan bezala, hasieran egoitza-ateratzeko egunak zenbatzen zituzten. 18 urteak betetzean, berriz, ez zeudela ateratzeko prest diote. Horiek horrela, guztiak bi sentimendu aipatu dituzte: bai ziurgabetasuna eta, zenbait adituen emaitzetara egokituz (Montserrat eta Casas, 2012; Campos, 2013), baita beldurra ere. Sentimendu horiek nora joan edo zer gertatuko zen ez jakitearen ondorio ziren eta, aldi berean, horiek zenbait arlotan eragina zuten (arlotu akademikoaren baitako kontzentrazio txikiagoa, adibidez). Horietaz gain, Melendroren ikerketan (2011) aipatutako bakardadea eta, gazte baten kasuan, prozesu bikain baten ostean emaitzarik ez lortzeko arriskuak eragindako amorrua azpimarrazgarriak dira.

Testuinguru honetan, gazteek jarraian azalduko diren aukerekin eta mugekin topo egin zuten. Aukerei dagokienez, egun emantzipazioko etxebizitzetara 18 urteak betetzen dituzten gazteen kopuru txiki batek baino ezin du sartu. Ikerketa honetan, zehazki, zortzi gazteetatik aukera hau hiruri baino ez zitzaie eman. Ondorioz, lau gazte kalean nahiz aterpeetan egon dira. Bi gazte, berriz, erakunde bateko pisuan daude (bat kalean nahiz aterpeetan egon den horietako bat izanik). Zenbaitek emantzipazioko etxeetan autonomiara bideratutako estrategia gehiago daudela dioten arren (Fernández-Simo *et al.*, 2020a), ikerketa honetan agerian geratu den bezala, gazteek batzuetan euren burua kudeatzeko gaitasuna mugatuta ikusten dute. Gazteetako batek dionenez, emantzipazio-pisuan hileroko erosketan gastatu ez duten dirua ezin da aurreztu, entitateak tiketean bidez justifikatu

du ten kopurua baino ez baitie ematen. Aukerekin jarraituz, 18 urteak betetzean terapiara joateko aukera galtzeak, berriro ere, gazte hauek erabateko babesetik zaurgarritasun-egoera batera igarotzen direla frogatzen du. Zehazki, saio gutxi batzuetako luzapena jaso zuen gazte baten kasua besterik ez dugu. Aitzitik, lehenago esan bezala batzuek terapiara joateko borondaterik ez duten arren, behintzat, guztiei aukera hori eman beharko litzaieke. Aukerekin bukatzeko, gazte guztiak ikasten ari dira, baina honek ez du esan nahi edozein trebakuntza burutzea erraztu zaienik. Batzuek, adibidez, eskola pribatueta eskaintzen den ile-apainketa ikasi nahiko lukete eta, honen ordezt, Sukaldaritza eta Zerbitzuko OLH burutzen ari dira. Honen harira, Arrakasta programarengatik izango ez balitz, unibertsitatean dauden bi gazteek ezin izango zuketela ordaindu diote.

Mugei erreparatu, beste ikerketa batzuetan gazteek autonomoagoak izaten erakutsi beharko litzaiekeela esan izan dute, hala partaidetza galarazi zaielako nola gehiegizko babesa sentitu dutelako (Soldevila *et al.*, 2013; Hollingworth eta Jackson, 2016; Fernández-Simo eta Cid, 2018). Ikerketa honetan emaitzak antzekoak dira, gazte partaidetza handiagoa faltan bota dutelako edota, adin-nagusitasuna betetzean, ordura arteko «erosotasunak» galdu dituztela konturatu direlako. Prestakuntza, autonomiari dagokionean ez ezik, beste esparru batzuetan faltan bota dute: bulegotika eta curriculumaren lanketari buruzkoa, besteak beste. Ildo beretik, familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileek gizarte hartzailearen kulturari buruzko informazioa eman beharko litzaiekeela diote. Behin 18 urteak betetzean, emantzipaziorako programek ezin dituzte gazte guztien premiak asebate (Fernández-Simo *et al.*, 2020a) eta, honen ondoriozt, gazte batzuk kalean bizi behar izan dira edota unibertsitateira iristeko aukera emango ote zitzaizen zalantza eduki dute. Honekin batera, Hollingworth eta Jackson-ek esan bezalaxe (2016), zenbait zerbitzuei uko egin behar izan diote: kirol-jardueren harpidetzari, akademia bateko behar haina klase jasotzeari edo terapiara joateari, besteak beste. Gazte migratzaileetako batzuek, aipaturiko mugei ez ezik, egoera administratibo irregularrean egotearen beldurri aurre egin behar diote.

Partaideen testigantzetan teorikoki gehiegi funtsatu ez den gai bat azaldu da: aurreiritziena, alegia. Zehazki, bi multzoetan sailkatu litezke: bai jatorriaren araberekoak eta baita administrazioaren tutoretzapean egotearen ondoriozkoak ere. Gazteetako batek, adibidez, poliziak jatorri marrokarreko lagunak miatu izan dituela gogoan du. Tutoretzapean egotearen ondoriozko aurreiritziak, halaber, maila ezberdinetan antzeman dira. Lagunekin hasteko, partaideetako batzuek denbora bat igaro arte ez zietela pisu batean bizi zirenik esan diote. Are gehiago, horietako batek unibertsitateko ikaskideei oraindik ez diela ezer esan dio (horregatik gezurren bat esan behar izan duen arren). Bizilagunekin jarraituz, harremana hobetu litekeela diote, arazoren bat dagoenean errudunak harrera- edo emantzipazio-pisuko pertsonak izan direla pentsatzeko joera baitago. Az-

kenik, Epeldek dionez (2016; 2017) ez da pertsona hauen egoera ulertarazteko sentsibilizazio-lanik egiten eta, honen ondorioz, gazteetako batek bere burua komentario negatiboak deseraikitzen derrigorturik ikusi duela dio (nahiz eta azalpenak eman behar izatea ez gustatu). Estereotipo negatibo hauek, hein handi batean, hedabideek eta eskuin muturreko alderdi politikoek legitimatzen dituzte. Beraz, adituek bezalaxe (Martín eta Jackson, 2002; Montserrat eta Casas, 2012), gazteek normalizazioaren premian bat egin dute.

BIBLIOGRAFIA

- Bowlby, J. (1951). *Maternal Care and Mental Health*. World Health Organization Monograph Series.
- Campos, G. (2013). Transición a la vida adulta de los jóvenes acogidos en residencias de protección [Doktore-tesia, Universidad Autónoma de Madrid].
- Comasòlivas, A., Sala-Roca, J. eta Marzo, T.E. (2018). Los recursos residenciales para la transición a la vida adulta de los jóvenes tutelados en Cataluña. *Pedagogía Social: revista interuniversitaria*, 31, 125-137. https://doi.org/10.7179/PSRI_2018.31.10
- Courtney, M. E. eta Dworsky, A. (2006). Early outcomes for young adults transitioning from out-of-home care in the USA. *Child & Family Social Work*, 11(3), 209-219. <https://doi.org/10.1111/j.1365-2206.2006.00433.x>
- Cuenca, M. E., Campos, G. eta Goig, R. M. (2018). El tránsito a la vida adulta de los jóvenes en acogimiento residencial: El rol de la familia. *Educación XXI*, 21(1), 321-344. <https://doi.org/10.5944/educxx1.20201>
- De Pelekais, C. (2000). Métodos cuantitativos y cualitativos: diferencias y tendencias. *Telos*, 2(2), 347-352.
- Del Valle, J.F., Bravo, A., Alvarez, E. eta Fernanz, A. (2008). Adult self-sufficiency and social adjustment in care leavers from children's homes: a long-term assessment. *Child & Family Social Work*, 13(1), 12-22. <https://doi.org/10.1111/j.1365-2206.2007.00510.x>
- Díaz, M.V. (2014). Incorporación a la vida adulta de menores migrantes no acompañados: el caso de la Comunidad de Madrid [Doktore-tesia, Universidad Pontificia de Comillas de Madrid].
- Dinisman, T. eta Zeira, A. (2011). The contribution of individual, social support and institutional characteristics to perceived readiness to leave care in Israel: An ecological perspective. *British Journal of Social Work*, 41(8), 1442-1458. <https://doi.org/10.1093/bjsw/bcr034>
- Dixon, J. (2008). Young people leaving care: health, well-being and outcomes. *Child & Family Social Work*, 13(2), 207-217. <https://doi.org/10.1111/j.1365-2206.2007.00538.x>
- Dworsky, A. eta Courtney, M. (2010). The risk of teenage pregnancy among transitioning foster youth: Implications for extending state care beyond age 18. *Children and Youth Services Review*, 32(10), 1351-1356. <https://doi.org/10.1016/j.childyouth.2010.06.002>

- Epelde, M. (2016). Euskal Autonomia Erkidegoko gazte etorkin tutelatu ohien gizarteratze prozesuak. Gizarte laguntasunezko esku-hartzeak aztergai [Doktoreresia, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- Epelde, M. (2017). Nuevas estrategias para la integración social de los jóvenes migrantes no acompañados. *Revista sobre la infancia y la adolescencia*, 13, 57-85. <https://doi.org/10.4995/reinad.2017.6546>
- Espainiako Konstituzioa [EK]. (BOE, 311. zk., 1978ko abenduaren 29a).
- Fang, S., Johnson, M., Galambos, N. eta Krahn, H. (2020). Convoys of perceived support from adolescence to midlife. *Journal of Social and Personal Relationships*, 37(5), 1416-1429. <https://doi.org/10.1177/0265407519899704>
- Fernández-Simo, D. (2017). Repensar la calidad en el proceso de acompañamiento socioeducativo con infancia y adolescencia en protección. Retos pendientes desde la educación social. *Revista de Educación Social* (25), 284-300.
- Fernández-Simo, D. eta Cid, X. M. (2018). Análisis longitudinal de la transición a la vida adulta de las personas segregadas del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia. *Bordón*, 70(2), 25-38. <https://doi.org/10.13042/Bordon.2018.54539>
- Fernández-Simo, D., Cid, X. M. eta Carrera, M. V. (2019). La educación social en la formación para el empleo de la juventud con medida administrativa de protección. J. Longas eta J. Vilar (koord.), XXXII Seminario Interuniversitario de Pedagogía Social. La Pedagogía Social en un entorno VICA: ¿Viejos problemas, nuevas perspectivas? (167-170 or.). Ediciones Blanquerna.
- Fernández-Simo, D., Cid, X. M. eta Carrera, M. V. (2020a). Deficits of adaptability and reversibility in the socio-educational strategy for youth in protection services during the transition to adult life. *Children and Youth Services Review*, 117, 1-7. <https://doi.org/10.1016/j.childyouth.2020.105302>
- Fernández-Simo, D., Cid, X. M. eta Carrera, M. V. (2020b). Incidencia del Estado de Alarma en la Desigualdad Escolar de la Adolescencia Acogida por el Sistema de Protección en Galicia. *Revista Internacional de Educación para la Justicia Social*, 9(3), 141-156. <https://doi.org/10.15366/riejs2020.9.3.008>
- Forsman, H., Brännström, L., Vinnerljung, B. eta Hjern, A. (2016). Does poor school performance cause later psychosocial problems among children in foster care? Evidence from national longitudinal registry data. *Child Abuse & Neglect*, 57, 61-71. <https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2016.06.006>
- Galambos, N., Fang, S., Horne, R., Johnson, M. eta Krahn, H. (2018). Trajectories of perceived support from family, friends, and lovers in the transition to adulthood. *Journal of Social and Personal Relationships*, 35(10), 1418-1438. <https://doi.org/10.1177/0265407517717360>
- García, E. eta López, J. (2017). Emancipación residencial: el coste de acceso sólo cuenta parte de la historia. *Revista de Estudios de Juventud* (116), 63-74.
- Gipuzkoako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. (2017). *BALORA tresnaren eguneraketa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- González-Navasa, P. (2018). El Acogimiento Residencial Infantil en Tenerife: perfiles atendidos, programas de intervención y evaluación de resultados [Doktoreresia, Universidad de La Laguna].
- Goyette, M. (2010). El tránsito a la vida adulta de los jóvenes atendidos desde servicios sociales. *Pedagogía social. Revista Interuniversitaria* (17), 43-56. https://doi.org/10.7179/PSRI_2010.17.04

- Goyette, M., Mann-Feder, V., Turcotte, D. eta Grenier, S. (2016). Youth empowerment and engagement: an analysis of support practices in the youth protection system in Quebec. *Revista Española de Pedagogía*, 263, 31-50.
- Hollingworth, K. eta Jackson, S. (2016). Falling off the ladder: Using focal theory to understand and improve the educational experiences of young people in transition from public care. *Journal of Adolescence*, 52, 146-153. <https://doi.org/10.1016/j.adolescence.2016.08.004>
- Jackson, S. eta Cameron, C. (2012). Leaving care: Looking ahead and aiming higher. *Children and Youth Services Review*, 34, 1107-1114. <https://doi.org/10.1016/j.childyouth.2012.01.041>
- Jackson, S. eta Martin, P. (1998). Surviving the care system: education and resilience. *Journal of Adolescence*, 21, 569-583. <https://doi.org/10.1006/jado.1998.0178>
- Jackson, S. eta Ajayi, S. (2007). Foster care and higher education. *Adoption & Fostering*, 31(1), 62-72.
- Krahn, H., Howard, A. eta Galambos, N. (2015). Exploring or Floundering? The Meaning of Employment and Educational Fluctuations in Emerging Adulthood. *Youth & Society*, 47(2), 245-266. <https://doi.org/10.1177/0044118X12459061>
- Krahn, H., Johnson, M. eta Galambos, N. (2021). Intrinsically Rewarding Work and Generativity in Midlife: The Long Arm of the Job. *Journal of Social and Personal Relationships*, 48(2), 184-206. <https://doi.org/10.1177/0730888420964942>
- Llosada-Gistau, J., Montserrat, C. eta Casas, F. (2017). ¿Cómo influye el sistema de protección en el bienestar subjetivo de los adolescentes que acoge? *Sociedad e Infancias*, 1, 261-282. <https://doi.org/10.5209/SOCI.55830>
- López, M., Santos, I., Bravo, A. eta Del Valle, J.F. (2013). El proceso de transición a la vida adulta de jóvenes acogidos en el sistema de protección infantil. *Anales de psicología*, 29(1), 187-196. <https://doi.org/10.6018/analesps.29.1.130542>
- Martín, E. eta Dávila, L.M. (2008). Redes de apoyo social y adaptación de los menores en acogimiento residencial. *Psicothema*, 20, 229-235. <http://www.psicothema.com/pdf/3453.pdf>
- Martín, E. (2011). Apoyo social percibido en niños y adolescentes en acogimiento residencial. *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 11(1), 107-120.
- Martín, E., Torbay, A. eta Rodríguez, T. (2008a). Cooperación familiar y vinculación del menor con la familia en los programas de acogimiento residencial. *Anales de Psicología*, 24(1), 25-32.
- Martín, E., Muñoz de Bustillo, M.C., Rodríguez, T. eta Pérez, Y. (2008b). De la residencia a la escuela: la integración social de los menores en acogimiento residencial con el grupo de iguales en el contexto escolar. *Psicothema*, 20(3), 376-382.
- Martín, E., González, P., Chirino, E. eta Castro, J.J. (2020). Inclusión social y satisfacción vital de los jóvenes extutelados. *Pedagogía social: revista interuniversitaria*, 35, 101-111. https://doi.org/10.7179/PSRI_2020.35.08
- Martin, P. eta Jackson, S. (2002). Educational success for children in public care: advice from a group of high achievers. *Child and Family Social Work*, 7, 121-130. <https://doi.org/10.1046/j.1365-2206.2002.00240.x>

- McNamara, P., Harvey, A. eta Andrewarta, L. (2017). Passports out of poverty: raising access to higher education for care leavers in Australia. *Children and Youth Services Review*, 97, 85-93. <https://doi.org/10.1016/j.childyouth.2017.07.015>
- Melendro, M. (2011). El tránsito a la vida adulta de los jóvenes en dificultad social. *Zerbitzuan: Gizarte Zerbitzuetarako Aldizkaria*, 49, 93-106. DOI:10.5569/1134-7147.49.08
- Melendro, M. (2016). *Jóvenes sin tiempo: Riesgos y oportunidades de los jóvenes extutelados en el tránsito a la vida adulta*. Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud. <https://doi.org/10.5281/zenodo.3653751>
- Melendro, M., Campos, G., Rodríguez-Bravo, A.E. eta Arroyo, D. (2020). Young people's autonomy and psychological well-being in the transition to adulthood: a pathway analysis. *Frontiers in Psychology*, 11, 1-13. <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2020.01946>
- Melero, N. (2011). El paradigma crítico y los aportes de la investigación acción participativa en la transformación de la realidad social: un análisis desde las ciencias sociales. *Cuestiones Pedagógicas*, 21, 339-355.
- Montserrat, C. eta Casas, F. (2010). Educación y jóvenes ex-tutelados: revisión de la literatura científica española. *Educación XXI*, 13(2), 117-138. <https://doi.org/10.5944/educ.xx1.13.2.240>
- Montserrat, C. eta Casas, F. (2012). Educación y jóvenes procedentes del sistema de protección a la infancia. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria*, 52, 153-165. <https://doi.org/10.5569/1134-7147.52.10>
- Montserrat, C. eta Casas, F. (2018). What role do children play in social services? Psicoperspectivas: *Individuo y Sociedad*, 17(2), 1-13. <https://doi.org/10.5027/psicoperspectivas-Vol17-Issue2-fulltext-1152>
- Oriol, X., Sala-Roca, J. eta Filella, G. (2014). Emotional competences of adolescents in residential care: Analysis of emotional difficulties for intervention. *Children and Youth Services Review*, 44, 334-340. <https://doi.org/10.1016/j.childyouth.2014.06.009>
- Rodríguez-Bravo, A.E., De-Juanas, Á. eta González-Olivares, Á.L. (2016). Atribuciones de los jóvenes en situación de vulnerabilidad social sobre los beneficios del estudio y la inserción social. *Revista Española de Pedagogía*, 74(263), 91-108.
- Santana, L., Alonso, E. eta Feliciano, L. (2018). Trayectorias laborales y competencias de empleabilidad de jóvenes nacionales e inmigrantes en riesgo de exclusión social. *Revista Complutense de Educación*, 29(2), 355-369. <https://doi.org/10.5209/RCED.52444>
- Schütz, F., Sarriera, J.C., Bedin, L. eta Montserrat, C. (2015). Subjective well-being of children in residential care centers: Comparison between children in institutional care and children living with their families. *Psicoperspectivas*, 14(1), 19-30. <http://dx.doi.org/10.5027/psicoperspectivas-Vol14-Issue1-fulltext-517>
- Soldevila, A., Peregrino, A., Oriol, X. eta Filella, G. (2013). Evaluation of residential care from the perspective of older adolescents in care. The need for a new construct: optimum professional proximity. *Child & Family Social Work*, 18(3), 285-293. <https://doi.org/10.1111/j.1365-2206.2012.00843.x>
- Trindade, V. (2016). Entrevistando en investigación cualitativa y los imprevistos en el trabajo de campo: de la entrevista semiestructurada a la entrevista no estructurada. P. Schettini eta I. Cortazzo (Koord.), *Técnicas y estrategias en la investigación cualitativa* (18-32 or.). Editorial de la Universidad de la Plata.